

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Kontrataziorako laguntzen deialdi publikoa eta oinarriak. Suspertzen ari diren sektoreen enplegu-plana 2026

2026ko uztailaren 24an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau onartu zuen: "Kontrataziorako laguntzen deialdi publikoa eta oinarriak. Suspertzen ari diren sektoreen enplegu-plana 2026".

Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten entitate eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak.

Erabaki horren kontra, administrazio-bidea ahitzen baitu, zuzenean aurkeztu daitezke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldeztu aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu daitezke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu berraztertze errekurtsoa espresuki edo presuntzioz ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berariazko oinarri arautzaileen publizitateari buruz araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitaratu dira:

Arau-esparrua

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak arau hauek arautzen dituzte, deialdian bertan ezarritakoaz gain, beste arau hauen pean: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra (aurrerantzean, dirulaguntzen ordenantza orokorra), zeinaren helburua baita Vitoria-Gasteizko udalaren dirulaguntzak emateko prozedura arautuko duten oinarri orokorrak ezartzea. Ordenantza horri 2023ko apirilaren 21an eman zitzaion hasierako onespina, eta 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen.

1. oinarria. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza-ildoak

Laguntza hauek indarrean dagoen dirulaguntzen plan estrategikoan (2025-2027) aurreikusten dira, zeina 2025eko urtarrilaren 17an onetsi baitzuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak.

Planak dirulaguntza ildo kokatzen ditu laguntza horiek: Vitoria-Gasteizen lan-kontratazioa sustatzeko laguntzak (08_07_v03 fitxa).

Laguntza hauek lortu nahi duten sustapen-jardueraren bidez lortu nahi den helburu espezifiko honako hau da: Ignacio Ellacuria eta CETIC udal-zentroetan emandako eraikuntzaren, diseinu grafiko eta informatikoaren eta logistikaren arloarekin lotutako prestakuntza-ekintza bat behar bezala gainditu duten langabeen kontratazioa bultzatzea, enpresentzako itzuli beharrik gabeko laguntzen bidez.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

2.1. Oinarri hauen xedea da Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak Ignacio Ellacuria eta CETIC udal zentroetan ematen diren zenbait prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten langabeen laneratzea bultzatzeko emango dituen laguntza ekonomikoen baldintzak zehaztea. Baliatuko den erregimena konkurrentzia sinplea izango da eta aipatutako prestakuntza-ekintzak agiri honen 3.oinarrian agertzen dira definituta.

2.2. Ignacio Ellacuria eta/edo eta CETIC udal zentroetan eman diren eta 3. oinarriko 3.1, 3.2 eta 3.3 adierazitako prestakuntza-ekintzaren batean gai kalifikazioa lortu duten pertsonak kontratatzeke dira laguntzok. Kontratuak 6 hilabeteko iraupena izan beharko du, gutxienez, bai lanaldi osoan, bai lanaldi partzialean (gutxienez lanaldiaren ehuneko 75 – dagokion urtean indarrean dagoen legezko gehienekoarekin bat).

2.3. Laguntza ekonomiko hauek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira, eta konkurrentzia sinplearen prozeduraren bidez emango dira, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 19.1 artikuluekin eta III. kapituluarekin bat etorritik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia).

3. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak eta gastuak

Dirulaguntza eskuratu ahal izateko, kontratuak gutxienez 6 hilabeteko iraupena izan behar dute, indarreko lan-legerian aurreikusitako edozein kontratazio-modalitatetan (4. oinarrian zehaztutakoak izan ezik). Horretaz gain, 3.1, 3.2, edo 3.3 ataletako baldintzak ere bete behar dituzte:

Gehienez ere hiru laguntza emango dira enpresa, pertsona autonomo edo erakunde bakoitzeko, diruz lagundu daitezkeen ekintza mota bakoitzean, prestakuntza-arloaren arabera.

Oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen direlarik egiten diren lan-kontratazioak.

Hona hemen diruz lagundu daitezkeen ekintza motak, prestakuntza-arloaren arabera:

3.1- 1. mota Eraikuntza sektoreko kontratuak.

3.1.1. Kontratuak 2026ko maiatzaren 9tik 2027ko martxoaren 31ra bitartean formalizatu beharko da (biak barne)."

3.1.2. Lanaldia osoa edo partziala izan daiteke, baldin eta azken hori gutxienez ohiko lanaldiaren ehuneko 75ekoa bada, kontratuak hasten denetik indarrean dagoen bitartean.

3.1.3. Kontratatuek betekizun hauek bete behar dituzte:

3.1.1.1. Langabezian egotea kontratazioaren aurreko egunean.

3.1.1.2. Ignacio Ellacuria udal zentroan, eraikuntza eta birgaitze jasangarriaren sektorearen inguruan emandako prestakuntza-ekintza hauetakoren bat egin eta gaindituta izatea:

— 1., 2. eta 3. mailetako edozein profesionaltasun-ziurtagiri, 2024ko urtarrilean eta hortik aurrera eskuratutakoa.

— 100 orduko edo hortik gorako ikastaroak —profesionaltasun-ziurtagirik izan ez arren—, 2023ko ekainean eta hortik aurrera eskuratutakoak.

3.1.4. Kontratua Ignacio Ellacuria udal zentroan eman eta aurreko paragrafoan deskribatutako prestakuntza-espezialitatearekin lotutako lanbide-kategoriakoa izan behar da.

3.1.5. Dirulaguntza jaso ahal izateko, Ignacio Ellacuria udal-zentroko zuzendaritzak aldeko txostena eman behar du, honakoari dagokionez: kontratuan zehaztutako lanpostua eta zeregin eta eginkizunak 1. motako sektoreari dagozkiola.

3.1.6. Kontratuek formalizatzen diren unean indarrean dagoen lan-araudia bete beharko dute.

3.1.7. Eskabidea aurkeztu aurretik, formalizatu egin behar da kontratua eta langileari Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta eman.

3.2- 2. mota: Diseinu grafikoa eta informatika sektoreetako kontratuak.

3.2.1. Kontratua 2026ko maiatzaren 9tik 2027ko martxoaren 31ra bitartean formalizatu beharko da (biak barne):

3.2.2. Lanaldia osoa edo partziala izan daiteke, baldin eta azken hori gutxienez ohiko lanaldiaren ehuneko 75ekoa bada, kontratua hasten denetik indarrean dagoen bitartean.

3.2.3. Kontratuek betekizun hauek bete behar dituzte:

3.2.1.1. Langabezian egotea kontratazioaren aurreko egunean.

3.2.1.2. CETIC udal-zentroan, diseinu grafikoaren eta informatikaren arloaren inguruan emandako prestakuntza-ekintza hauetakoren bat egin eta gaindituta izatea:

— 1., 2. eta 3. mailetako edozein profesionaltasun-ziurtagiri, 2024ko urtarrilean eta hortik aurrera eskuratutakoa.

— 100 orduko edo hortik gorako ikastaroak —profesionaltasun-ziurtagirik izan ez arren—, 2023ko ekainean eta hortik aurrera eskuratutakoak.

3.2.4. Kontratua CETIC udal-zentroan eman eta aurreko paragrafoan deskribatutako prestakuntza-espezialitatearekin lotutako lanbide-kategoriakoa izan behar da.

3.2.5. Dirulaguntza jaso ahal izateko, CETIC udal-zentroko zuzendaritzak aldeko txostena eman behar du, kontratuan zehaztutako lanpostua eta zeregin eta eginkizunak deialdi honen xede den sektoreari dagozkiola frogatzeko.

3.2.6. Kontratuek formalizatzen diren unean indarrean dagoen lan-araudia bete beharko dute.

3.2.7. Eskabidea aurkeztu aurretik, formalizatu egin behar da kontratua eta langileari Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta eman.

3.3- 3. mota: Logistika sektoreko kontratuak.

3.3.1. Kontratua 2026ko maiatzaren 9tik 2027ko martxoaren 31ra bitartean formalizatu beharko da (biak barne).

3.3.2. Lanaldia osoa edo partziala izan daiteke, baldin eta azken hori gutxienez ohiko lanaldiaren ehuneko 75ekoa bada, kontratua hasten denetik indarrean dagoen bitartean.

3.3.3. Kontratuek betekizun hauek bete behar dituzte:

3.3.3.1. Langabezian egotea kontratazioaren aurreko egunean.

3.3.3.2. Ignacio Ellacuria edo CETIC udal-zentroan logistikaren arloan emandako prestakuntza-ekintza hauetakoren bat egin izana eta behar bezala amaitu izana:

— 1., 2. eta 3. mailetako edozein profesionaltasun-ziurtagiri, 2024ko urtarrilean eta hortik aurrera eskuratutakoa.

3.3.4. Kontratua Ignacio Ellacuria udal zentroan eman eta aurreko paragrafoan deskribatutako prestakuntza-espezialitatearekin lotutako lanbide-kategoriakoa izan behar da.

3.3.5. Dirulaguntza jaso ahal izateko, Ignacio Ellacuria udal-zentroko zuzendaritzak aldeko txostena eman behar du, kontratuan zehaztutako lanpostua eta zeregin eta eginkizunak 3. motako sektoreari dagozkiola egiaztatzeko.

3.3.6. Kontratuek formalizatzen diren unean indarrean dagoen lan-araudia bete beharko dute.

3.3.7. Eskabidea aurkeztu aurretik, formalizatu egin behar da kontratua eta langileari Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean alta eman.

4. oinarria. Dirulaguntzaren xede izango ez direnak

Kontratuei dagokienez, honako hauek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso:

4.1. Langileen Estatutuaren Legearen 44. artikulua eraginpeko enpresek formalizatutako kontratazioak (enpresaren titulartasunaren ondorengotza baten edo haren forma juridikoaren aldaketaren ondoriozkoak), kontratazio-dataren aurreko 6 hilabeteetan eta deialdi hau ebatzen den egunera arte.

4.2. Enpresaburuaren —edo enpresen kontrola duten, zuzendaritza-karguetan diharduten nahiz sozietatearen forma juridikoaren parte diren administrazio-organismoetako kideen— ezkontideak, ondorengoak edo bigarren mailara arteko —hori barne— odol- edo ezkontza-ahaidetasuna duten senideak kontratatzea.

4.3. Enpresa edo entitateko zuzendaritza-karguetan dihardutenak edo administrazio-organismoetako kide direnenak kontratatzea.

4.4. Laguntza eskatzen duten sozietateetan partaidetzak dituzten edo kontratazioaren aurreko urtean izan dituzten pertsonen dagozkien kontratuak.

4.5. Prestakuntza- eta ikasketa-kontratuak.

4.6. Aldizkako kontratu finkoak.

4.7. Txanda-kontratuaren modalitatean egindako kontratuak.

4.8. Deialdi berean edo aurrekoetan proiektu honetan parte hartu duten pertsonen kontratuak.

Era berean, enpresa hauek ezingo dute laguntzarik jaso:

4.9. Dirulaguntzen Lege Orokorren 13., eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 11.2 artikuluetako debeku egoeraren batean dauden enpresak.

4.10. Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haiekin loturarik duten edo haien mendeko diren entitateak.

4.11. Aldi baterako lanerako enpresak, langileak beste enpresa bati aldi baterako lagatzeko kontratatzeari dagokionez.

4.12. Vitoria-Gasteizko Udalak nahiz beraren enpresa edo erakunde autonomoek esleitutako kontratuak gauzatzeko eta egindako lan-kontratazioak.

4.13. Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak —urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia— 2.1 artikuluan aipatzen dituen lan-harreman bereziak.

5. oinarria. Dirulaguntzak jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webguneko (www.vitoria-gasteiz.org) iragarki-taula digitalean argitaratuko dira. Emandako edo ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da, pertsona edo enpresa eskatzaileak adierazita, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo ukatzeko arrazioa ere, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak; horretaz gain, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

6. oinarria. Enpresa onuradun izateko betekizunak

Betekizun hauek betetzen dituzten enpresek jaso ahal izango dituzte deialdi honetako dirulaguntzak, edozein delarik ere haien forma juridikoa:

6.1. Egoitza soziala edo lantokia Vitoria-Gasteizko udalerrian izatea.

6.2. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak, Aldundiarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori —dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

6.3. Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak ez jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen legeko debekurik ez jaso izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bateginak —martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia— 3.1 artikuluan jasotako sexu-diskriminazioarengatik edo diskriminazio anizkoitzarengatik gertatutakoak barne, edo Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginak —abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia— 46.1.b) eta 46 bis 1.b) artikuluetan aurreikusitako zehapen osagarria jaso izana.

6.4. Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkatzeko duen pertsona bat izendatu beharko da, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada elkarte, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

6.5. Deialdi honetan aurreikusten diren enpresentzako laguntzek Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan ezarritako “minimis” araua bete beharko dute, Europar Batasunaren Tratatuaren 107. eta 108. artikuluetan “minimis” laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

6.6. Aurreko baldintzak betetzen jarraitzea, ebazpena eman arte.

7. oinarria. Baliabide ekonomikoak

Deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 285.570,00 eurokoa izango da guztira, Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailaren 2026ko ekitaldirako udal-aurrekontuko partidaren kargura.

2026/0823 2411 471.01 “Suspertzen ari diren sektoreetako enplegua 2026”

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 58. artikuluan ezarritakoaren ildotik, aurrekontu-zuzkidura hori handitzeko modua izango da, organo eskudunaren erabaki baten bitartez, baldin eta udal sail horrek kudeatutako dirulaguntza-partidetan (guztiak kontuan hartuta) krediturik badago. Edonola ere, zenbateko gehigarria erabiltzekotan, kreditu erabilgarria badagoelako deklarazioa egin beharko da, eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan (deialdia argitara eman zen bitarteko berberetan).

Aurrekontu-esleipena honela banatuko da diruz lagundu daitezkeen ekintza moten artean, prestakuntza-arloaren arabera:

1. mota. Eraikuntza sektoreko kontratuak: berrehun eta zortzi mila lauhun eta hirurogeita sei euro (208.466,00 euro).

2. mota. Diseinu grafikoa eta informatika sektoreetako kontratuak: Berrogeita zortzi mila bostehun eta berrogeita zazpi (48.547,00) euro.

3. mota. Logistika sektoreko kontratuak: hogeita zortzi mila bostehun eta berrogeita hamazazpi (28.557,00) euro.

Laguntzak emateko prozedura bete ondoren mota horietako batean ematen diren laguntzen zenbateko osoa aurreko atalean adierazitakoa baino txikiagoa bada, deialdiko baldintzak bete arren aurrekontua nahikoa ez izateagatik hasiera batean laguntzarik gabe geratu diren beste laguntza-motako eskabideei dirulaguntza emateko baliatu ahalko da funts-soberakin hori.

8. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu, xede edo epe bererako beste administrazio publiko edo entitate publiko nahiz pribatu batzuek dirulaguntza eskatzeko aurkeztu den kontratuarekin lotuta ematen dituzten beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

9. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea eta bideak

9.1. Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko dira indarrean oinarri hauek; aldez aurretik laburpen-iragarkia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean.

Eskabideak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2027ko maiatzaren 8an, egun hori barne, amaituko da (hiru laguntza motak), baldin eta deialdiaren diru-zuzkidura aurretik agortu ez bada; kasu horretan, amaitutzat emango da deialdia, baita eskabideak aurkezteko epea ere.

Enpresa interesdunek eskabidea aurkezteak oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

9.2. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

— Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (<https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>). Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahal izango da, erregistro elektronikoen bidez. Horretarako, identifikazio-txartel digital bat erabili beharko da.

— Aurrez aurre:

- Udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea); ordutegia: 8:30 - 14:00 (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

- Gizarte-etxeen sareko herritarrei laguntzeko bulegoetan (hitzordua eskatu behar da, 010 telefonoan edo www.vitoria-gasteiz.org webgunean).

Aurrez aurre arreta emateko gunean, dokumentazioa orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. b artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak posta-bulegoetan ere aurkeztu ahalko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektroniko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsonen tramitazioak iraun bitartean, aurkeztutako eskabideak arin eta eraginkortasunez ebazteko oharrak jaso ahal izateko.

9.3. Eskabideak epe kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

10. oinarria. Nahitaezko agiriak

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira, nahitaez:

10.1. Eskabide-orria eta zinpeko aitorpena, oinarri hauetako I. eranskineko ereduaren arabera. Atal guztiak bete beharko dira, nahitaez.

10.2. Enpresa eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

- NAN edo AIZ, autonomoen kasuan, edo enpresaren IFZ.
- Enpresa eratzeko eskritura, enpresaren estatutuak eta legezko ordezkariaren ahalmenaren egiaztapena. Geroko aldakuntza-eskriurak, enpresaren ordezkariari eta helbide sozialari eragiten dietelarik.
- Legezko ordezkariaren NAN/AIZaren fotokopia.
- Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiri eguneratuak, horiek ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero (udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizioz egiaztatuko da).

10.3. Kontratututako pertsona egiaztatzeak agiriak:

- Laguntza jasoko duen lan-kontratua, bi aldeek sinatuta, Lanbideri kontratazio hori bide telematikoz jakinarazi izanaren egiaztagiriarekin batera.
- Kontratututako pertsonaren lan-bizitzaren txostena, kontratazioa egin denez geroztiko datarekin.
- Kontratatuaren NANA edo AIZ.
- Kontratazioaren soldata-kostuaren ziurtagiria, enpresa eskatzaileak emana. Kostuen kalkulua, deialdi honi dagozkionetarako, lagundutako kontratuko langilearen soldata gordina izango da, enpresaren kontura diren Gizarte Segurantzako kostuak gehituta —dirulaguntzak barne hartzen dituen 6 hilabeteetako—.

10.4. Enplegu Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko ditu baldintza hauek:

- Enpresak egunean dituela betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak. Zergak aipatutakoez besteko administrazio batean ordaindu behar badira, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak. Enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahalko du ofiziozko egiaztapenerako baimena (l. eranskina); kasu horretan, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du.
- Kontratatuak deialdi honetako 3. oinarrian zehaztutako prestakuntza-ekintzetako bat gainditu duela.
- Diruz lagundutako kontratuko lanpostuak Ignacio Ellacuria edo CETIC udal-zentroen aldeko txostena duela, lanbide-kategoria, okupazioa eta deialdi honen 3. oinarrian definitutako arlokoa izateari buruzkoa.
- Enpresak kontratatatuaren tutoretza egin behar badu: tutoretza-konpromisoa Ignacio Ellacuria edo CETIC udal-zentroekin. Behar bezala beteta egon behar da, eta enpresaren legezko ordezkariak sinatuta.

11. oinarria. Eskabidearen akatsak zuzentzea

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 20.4 artikulua ildotik (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia), eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, horrela egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, betiere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

12. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Konkurrentzia sinplea baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, sarrera-erregistroko ordena kontuan hartuz.

Deialdi honen ondorioetarako, honako hau hartuko da konkurrentzia sinpletzat: eskabideak oinarri hauetan adierazitako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren, laguntza-mota bakoitza ematea kontuan hartuta sarrera-erregistroko hurrenkera, 7. oinarrian adierazitako kreditua agortu arte.

Enplegu Ataleko langileek osatuko dute organo instrukzio-egilea, eta horrek ofizioz egingo ditu dagozkion ebazpen-proposamenak taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduera oro.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, gorago adierazitako erregistro-ordenari jarraituko zaio, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatutakoan eta organo instrukzio-egileak emandako ebazpenaren ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez, eskumenak eskuordetzeari buruzko 2025eko maiatzaren 16ko erabakiarekin bat etorritik.

2026ko ekitaldia amaitu aurretik, hala badagokio, ekitaldi hori amaitu aurretik aurkeztutako eskaerei buruzko lehen ebazpena emango da; eta 2027an, berriz, eskabideak aurkezteko epea amaitzean jasotako eskaerei buruzko bigarren ebazpena emango da.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko erabakiak amaitu egingo du administrazio-bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze-errekurtsoa espresuki edo presuntziaz ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

13. oinarria. Ebazteko epea

Prozeduraren ebazpena eman eta argitaratzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunaren biharamunetik.

Interesdunek, dirulaguntzen ordenantza orokorraren 24.5 artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eskabideak ezetsitzat jo ahalko dituzte, Administrazioaren isiltasuna dela medio, baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen delarik ebazpen espresik eman eta jakinarazi ez bada.

14. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan eta dirulaguntzen ordenantza orokorreko 14. artikuluan xedatutakoa gorabehera, betebeharrak hauek izango dituzte enpresa onuradunek:

14.1. Laguntza emateko arrazoi izan den jarduera burutzea eta burutu dela egiaztatzea.

14.2. Dirulaguntzaren xede diren kontratuekin jarduten duten langileei horren berri eman beharko diete.

14.3. Vitoria-Gasteizko Udalaren egiaztatze-ekintzen eta bertako kontu-hartzaile nagusiaren finantza-kontrolerako ekintzen mende jartzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoen mende ere.

14.4. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea.

14.5. Zerga-betebeharrak bete eta Gizarte Segurantzari nahiz Vitoria-Gasteizko Udalari ordaindu beharrekoak ordaindu direla egiaztatzea.

14.6. Enpresak astean ordubete erreserbatuko du, Vitoria-Gasteizko Udalak goraka suspertzen ari diren sektoreetako enplegu-planaren esparruan izendatutako bideratzaileak enpresan kontratatua jaraipena egiteko edo horri laguntzeko.

14.7. Tutoretza-lanak egin behar badira, enpresak kontratatua lantoki berean lan egiten duen langile bat izendatu behar du tutore. Honek ezagutza eta esperientzia egokia izan behar du kontratatua lan-jardunaren gidaritza- aholkularitza- eta jaraipen-lanak egiteko.

14.8. Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari beharrezkotzat jotzen duen informazio eta agiri osagarri oro ematea, deialdi honetan jasotzen dituzten dirulaguntzak ulertu eta ebaluatzeko.

14.9. Udal dirulaguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako laguntza edo dirulaguntzarik jasoz gero, organo emaileari jakinaraztea.

14.10. Kontratua gutxienez 6 hilabetez mantentzea, eta aldi horretan zerga- eta lan-betebeharrak betetzea, baita Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak ere. Betebehar horiek betetzen ez badira, itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, dagozkion interesekin.

14.11. Aldi horretan, diruz lagundutako kontratuko langileak batek baja hartzen badu enpresan heriotza, ezintasun iraunkorra, dimisioa, borondatezko bajak, proba ez gainditzea nahiz kaleratze-zigorra direla kausa, laguntza benetako kontratazio-aldiarekiko proportzionala izango da.

14.12. Jasotako funts publikoak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. artikuluan adierazten diren kasuetan, deialdi honen 18. oinarrian ezarritakoaren arabera.

15. oinarria. Balioespen-irizpideak

Lehiaketa sinpleko deialdia denez, ez da balorazio-irizpiderik aurreikusten; 12. oinarrian ezarritakoaren arabera esleitu da.

16. oinarria. Dirulaguntza kalkulatzeko

16.1. Gehienez 8.800,00 euroko laguntza, lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko. Laguntza azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratuaren lehen sei hilabeteetako soldata-kostuen ehuneko 70, enpresa kontratatzailearen kargura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

16.2. Soldata-kostutzat zenbatuko dira ordainsari gordinari dagokion gastua (lanaldiaren arabera) eta enpresaren kargurako Gizarte Segurantzari dagozkion kostuak. Enpresak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du dirulaguntza eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioaren artean, eta gero justifikatu egin beharko du. Baldin eta, gerora, eskabidean adierazitakoa baino zenbateko txikiagoa justifikatzen badu enpresak, eta horrek laguntza kalkulua aldatzen duelarik ateratzen den kopurua benetan diruz lagundutakoa baino txikiagoa bada, jasotako dirulaguntza dena delako zati proportzionala itzuli beharko du.

Lanaldi partzialeko kontratuarako laguntzak proportzionalak izango dira.

16.3. Dirulaguntza zenbatekoa ehuneko 10 handituko da kontratua emakumeei egiten bazaie. Gehikuntza hori aplikatuta, dirulaguntza azken zenbatekoak ezingo du gainditu kontratatua soldata-kostuen ehuneko 70.

16.4. Enpresak langilearen tutoretza eginez gero, 140,00 euro ordainduko dira hilero, diruz lagundu daitekeen aldian.

17. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea

Deialdiaren ebazpena onartu ondoren, dena batera ordainduko da dirulaguntza. Horren aurretik, 10. oinarrian adierazitako nahitaezko dokumentazioa aztertu eta kontratazioa behar bezala egin dela eta deialdiko betekizunak betetzen direla egiaztatuko da, 14. oinarrian adierazten den bezala.

Kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: entitate onuradunak justifikatu gabe badu udalak emandako dirulaguntzaren bat, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean. Edonola ere, ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta enpresa onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, eta ezta ere dirua itzultzea dagokiola ebatzirik artean zordun denean.

18. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan edozein aldaketa funtsezko gertatuz gero, gerta liteke ebazpena aldatu beharra, betiere hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen du— 64. artikuluan eta dirulaguntzen ordenantza orokorrak 25.1 artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) xedatutakoaren arabera.

19. oinarria. Justifikatzeko epea eta modua

19.1. Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak 31.5 artikuluan xedatzen duenez, ezarritako justifikazio-epea igaro eta administrazio-organo eskudunari aurkeztu ez bazaio, organo horrek onuradunari eskatuko dio hamabost egun balioduneko epe luzaezinean aurkez dezala. Ezarritako epe horretan justifikazioa aurkezten ez bada, itzultzeko eskatuko da eta, hala badagokio, dagokion dossier zigortzailea abiaraziko. Justifikazioa epe horretan aurkezteak ez du onuraduna salbuesten ezar lekitzkiekeen zehapenetatik.

19.2. Justifikatzeko modua.

Enpresak emandako dirulaguntza justifikatu beharko du kontratazioa hasi eta 7 hilabetera, eta honako justifikazio-agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Justifikazioko kontu- arruntaren inprimakia (eranskineko ereduari jarraiki) behar bezala beteta, jarraibide hauen arabera:

Atal hauek bakarrik bete:

- Adierazpen-egilearen datuak eta dirulaguntza-ildoak (1. orria)
- 3. apartatua: dirulaguntzaren xeden den kontratuaren diru-sarreraren eta gastuen balantzea (5. or.).
- 4. atala: langile-gastuak eta gizarte-segurantzakoak, hilabeteka banakatuta (6. orrialdea)
- Zinpeko aitorpena (1 eta 4 laukiak, entitate eskatzailearen ekarpena barne, eta 5) + Enpresaren sinadura eta zigilua (8. or.).

2. Diruz lagundutako 6 hilabeteetako nominak eta ordainketa-egiaztagiriak (banketxeak zigilatutako agiria edo banku-ordainagiria) eta RLC agiriak (kotizazioen likidazioaren ordainagiria), dagozkien ordainketa-egiztagiriak barne.

3. Ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero, Foru Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta udalarekiko zerga-betebeharrak ordainduta edukitzearen ziurtagiriak.

20. oinarria. Kontrolatu, ebaluatu eta ikuskatzea

Vitoria-Gasteizko Udalak bere esku izango du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren bitartez emandako laguntzak xede aurreikusietara bideratzen direla bermatzeko beharrezko diren kontrol- eta ebaluazio-ekintzak egitea, eta eskatzen dien informazio osagarri guztia eman beharko diote pertsona onuradunek.

21. oinarria. Dirulaguntza galtzea, laguntzak itzultzea, eta horretarako prozedura

Oinarri hauetan jasotako kasuez gain, dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan (2023ko uztailaren 28ko ALHAO, 88. zenbakia) adierazten diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren II. kapituluaren eta dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da itzulketa-prozedurari, kausei, preskripzioari eta itzultzeko betebeharra dutenei dagokienez.

22. oinarria. Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Pertsona horiek, zeinek bere datuak ikusi, aldatu, ezereztu edo kontra egin nahi izanez gero, Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko dute.

23. oinarria. Berdintasun-klausulak

Entitate onuradunak Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoan eta Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 4/2005 Legean xedatutakoa bete beharko du. Era berean, errespetatu egin beharko ditu Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko otsailaren 15eko 4/2024 Legea, 2024ko martxoaren 1etik indarrean dagoena, eta Yogyakarta-ko printzipioak: Giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagozkienetan aplikatzeari buruzko printzipioak.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 24an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkaria*
MARÍA NANCLARES CABALLERO

Eranskinak

I. eranskina: Eskabide-oria, eredu normalizatua

(<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/50/30/105030.pdf>).

II. eranskina: Justifikazioko kontu-arruntaren inprimakia

(<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/69/41/96941.pdf>).